

Altza

Irrati uhinak Altzan

Larraitz Garmendia (lfnoa.: 391267)

altza Irrati tailerrak irratiari buruzko ihardunaldiak antolatu ditu otsailerako. Hilaren 23tik 27ra mintegiak, hitzaldiak eta mahai inguruak izango dira irratia sakonago ezagutu nahi duen jendearentzat.

Astelehenetik hasi eta ostirala bitarte mintegiak antolatu dira. Aldez aurretik matrikula egin duten partaideek bi gai nagusi izango dituzte aztergai 17.00etatik 19.30ak arte. Euskarazko mintegian «Nola lantzen da magazine irratsaio mota?» gaiaz jardungo dute Jaime

**Irrati munduko
jende ezagunak
hartuko
du parte
ihardunaldi
hauetan**

Otamendi, Itziar Arteaga eta Alberto Gorritibereak. Gonbidatuek irratian egiten duten lana ezagutarazten saiatuko dira. Bigarrenik, «Como se realiza un informativo» izenburupean erdarazko mintegia antolatu da. Kar-mele Aranburu, Viki Pizarro,

Lujan Goñi, Gorka de Azaola eta Luis Angel Garcia izango dira partaideak eta honi buruz egon daitezkeen zalan-tzak argitzen saiatuko dira.

Hitzaldi zein mahainguruak, 19.30etan hasi eta gaueko 21.00ak arte izango dira, astelehenetik ostiralera.

Irrati eta telebistako profesionalak aukeratu dituzten gaietatik hauek azpimarra daitezke: «Del 23F al 12J, papel de la radio y de los medios de comunicación», «Mujer, radio y comunicación», «¿Acabo la televisión con la estrella de la radio?», «Euskara, irratia eta komunikabide lokalak» eta azkenik «Radio, aventura e información internacional».

Komunikabideetan aritzen diren profesionalak beraien kezak mahairatuko dituzte eta irrati, telebista eta prentsa idatziaz arituko dira.

Teknologiari dagokionez, erakusketa berezia antolatu da «Teknologia berriak irratian» lelopean. Erakusketa egun bakarrekoa izango da, ostiralean hilak 27, arratsaldeko 17.00etatik 21.00etara. Irratiak liburuekin duen harremana ahaztu gabe, kultur etxeko liburutegiak komunikabideei buruzko liburu-gida berezia prestatu du.



Argazkiko Jaime Otamendik, Itziar Arteagak eta Alberto Gorritibereak irratiko magazineez jardungo dute.

AGINAGA

SAGAR DOTEGIA

URTE OSOAN IREKITA

TXOTXETIK

Egunero zabalik
astelehenetan ezik



Aginaga - USURBIL • Tfnoa.: 36 67 10 - 37 06 68

EDARITEGIA JATETXEA

OTARTEKOAK PINTXOAK

Fermin Calbeton 4
Tfnoa.: 42 25 62
DONOSTIA



IZKINA